



Abaitubidekurutzeta etxebizitza

Aldakerak: Bidekurutzeta / Karterukua
Karteruena

Ahozkoa: Kartéruana / Kartérükúa



43° 10' 54"

2° 34' 28"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casa posada titulada Videcuruceta... situada en el barrio de San Lorenzo jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con inclusión de los terrenos de su contigüedad setenta y tres y medio estados cuadrados superficiales de área, y la que se compone de sus correspondientes cuadradas y habitaciones..."
DJE 1/177 or. (1865)

Gaur egun taberna eta egun landetxea den baserri hau Berriztarren artean *Kartéruana* edo *Kartérükúa* moduan ezagutzen da. Honen gaineko lehendabiziko aipuak XVIII. eta XIX. mendeetan agertzen dira: *Abáitu-Videcrucéta* (1859, BUA, Nmcr). Beranduago, Puerto Ricoko apezpiku izandako Juan Bautista de Zengotita Vengoa jaio zen hantxe, 1731. urtean. *Videcuruceta* (1865, DJE, 1/ 177. or.) izeneko etxe horretan bertan ere, Bernardo de Gabiola Lazpita musikaria jaio zen, 1880. urtean.

Dokumentazioan Berrizen arrunta den *Bidekurutzeta* izenaz agertzen bada ere, Abaitua aldeko *Bidekurutzeta* da honako hau, eta ez Sarria aldean aurkitzen dugun *Bidekurutzeta* (**Ikus Bidekurutzeta**). XX. mendeko aipuetan *Bide Kurutzeta* (1910, BUA, RU) eta *Bidecurutzeta* (1967, BUA, CE) idatzizko formak agertzen diren bitartean, azken hamarkadetan, lehen esan bezala, *Kartérükúa* era nagusitu da ahozko-tasunean.

toponimia

Bizkaian ohikoa da etxe izenak oso luzeak izatea, luzeenak Euskal Herrian, lehenengo osagaia auzoaren izena izaten delako. Sarritan auzo izena hasieran etxe baten izena zen. Etxe bakarra egon zen eta bigarren bat eraikitzean zerbait bereizgarri gehitu zioten berriari eta gehienetan zaharrari. Denboraren poderioz auzoa sortu zen eta etxe guztiek zuten hasiera bera dute izenean. Hori bai, ahoz gehienetan bigarren zatia besterik ez da erabiltzen. Kasu honetan bidegurutzetan dagoen etxea da. Bizkaian kurutze eta horren laburpena den kurtze erabiltzen dira gainontzeko euskalkietan, berriz, gurutze da nagusi.



Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Bidearen kontran zegoen ostatua zen, eta, horregatik, aldaketaren bat jasan du, errepidearen gorabeherengatik edo handitu eta leiho batzuk balkoi bilakatu dituztelako. Bi isurkiko teilatua dauka, alde batean zabalagoa dena. Etxearen eskumaldea simetria ardatzaren arabera antolatuta dago, baina ezkerraldean atxikita beste gorputz bat dauka, atarekin eta leiho biribila-rekin gainean. Interesgarriena eskumako etxea da, besteak beste, informazioa ematen duen inskripzioa baitu.

XIX. mendean errotutako estiloan eraiki zen baserria, erdialdea indartuta eta dinteldun baoekin. Leihoburuei moldura bat jarri zieten lehenengo solairuan. Gaur egun, hormetako harria bistan badauka ere, lehen estalita eta pintatuta zegoen, beheko eta lehenengo solairuetako balkoien eta leihoen harlandu ederrekin kontrastea eginaz. Ganbaran, oster, dena luzituta zegoen. Leihoburuko inskripzioak honela dio: “CASA POSADA DE VIDE CURVICETA. EDI / FICADA POR DN JOAQUIN DE ZENGOTTA VENGOA / Y DA ANA TERESA DE BERANO AGUIRRE CON / SORTES Y SU HIJO DN FRANCO AÑO DE 1832”.